

3. Funtsezko elkarteak

Gure proiektua aurrera eramateko, funtsezkoak dira zenbait elkarte, eta beraiekin edukiko ditugun harremanak ezberdinak izango dira:

- Makinak lortuko ditugun Alemaniako *leasing* enpresa batekin akordioa egingo dugu. Gure bazkide den Garazi Casillasek alemanez dakienez, hasieran Alemaniara bidaiak egingo ditu makinaren funtzionamendua ikasi eta bertako enpresarekin akordioak adosteko. Gure zerbitzua bete ahal izateko makinak *leasing* enpresatik hartuko ditugu alokairu bat ordainduz, azken batean, hasieran ez dugulako nahikoa diru izango erosteko. Honela, makinak alokatu egingo ditugu, eta *leasing* enpresarekin akordioa egingo dugu, denbora bat igaro eta guk dirua lortu ondoren makinak erosteko aukera izateko.
- Birziklapena sustatuko dugunez, lurraldeko ingurumena zainduko dugu, eta horregatik, udaletxeekin akordioak egingo ditugu. Zerbitzu bat eskaintzeaz gain, herriko kutsadura gutxitzen lagunduko dugunez, udalen akordioak erraz lortzeko esperantza dugu, azken batean, udaletxeen eta instituzio publiko askoren kezka da gaur egungo ingurumena eta aldaketa klimatikoa.
- Gure makinak eremu ezberdinetan jarriko ditugunez, adibidez, supermerkatuetan, garraio publikoen geltokietan... enpresa ezberdinekin aliantzak egingo ditugu, beraiek makinak beren lurretan jartzen utziko digute, eta gure makinek beren zerbitzu edo produktuak bultzatuko dituzte, deskontu edo puntuak emanez. Era honetan, Eroski edota Lurraldebus bezalako enpresekin aliantzak lortzea espero dugu.